

# BALEIKE

238. ZENBAKIA. EURO BAT  
2014ko ABENDUA

[www.baleike.eus](http://www.baleike.eus)

## ALKATEAREN **AGURRA**

**Maiatzean zortzi urte  
beteko ditu alkatetzan  
Iñaki Agirrezabalak;  
berriro ez aurkeztea  
erabaki du**



**ERREPORTAJEA: ANTZERKI EGONALDIAK AITA MARIN**

32"

SMART TV

WIFIa barne



SAMSUNG  
LEDa UE32H4500

299€

PANASONIC  
LEDa TX48AS640

48"

649€

1.200 Hz

SMART TV

WIFIa barne

3D



40"

549€

24"

LG  
LEDa 24MT45D

189€



PANASONIC  
Mikrokatea  
SCHC19

20w

99€



39,90€

DIGIVOLT  
BOZGORAILUA  
HIFI16  
• Karaoke funtzioa



-%5

PANASONIC  
Mikrokatea  
SCHC29

BLUETOOTH

20w

129€



PANASONIC  
Mikrokatea  
SCPM250ECS

20w

119€



9"

SUNSTECH  
TABLETa  
TAB900 dual

89,90€

WIKO  
Mugikorrak

Lenny

149,90€

5"

5"

Rainbow

Sunset

99,90€




4G

4,5"

4"

Birdy

139,90€



ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endanetazumaia.com

# BALEIKE 237

9

baleike +

## IÑAKI AGIRREZABALAGA: “NORABIDE BERRI BATEAN JARRI DUGU HERRIA”

A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta  
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbieto, Izaskun Urbieto eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



5

hitz-tantak

ESTI MORA ETA

ENERITZ ZUBIZARRETA

20

argazkitan

AQUARIUMA

ETXE ONDOAN

28

erreportajea

ANTZEZLAN

BATEN HAZIAK

LANDATZEN

38

bertso sorta

GOMEZAGORI

GUTUNAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



TOKIKOM



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

**Diseinu zerbitzuak**  
tel.: 943 14 31 22

**Kopiak eta materiala**  
tel./Faxa: 943 14 31 20  
www.a3zumaia.com  
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

**Konponketak eta osagarriak**

- ✓ Oinetako konponketak
- ✓ Zolen ordezkaketak
- ✓ Takoiien, poltsen eta uhalen konponketak
- ✓ Kremailera aldaketak
- ✓ Botoliak, krisketak, zuloak
- ✓ Guraizeak, labanak, aiztoak... zorrozteak
- ✓ Lan bereziak



**Produktuen salmenta**  
Bame zolak, betunak, lokarriak...

Zunbilo, 8  
Tel. 660 50 32 29

**LIBRERIA AIZPURUA RUDENDA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide




Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 [anasetxekozapatak@telefonica.net](mailto:anasetxekozapatak@telefonica.net)

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



**ILEA PAINDEGIA**

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6, behea  
tel. 943 117 406

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943 862 532


Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**OKI-EDER**

**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/0  
Zumala 943016429

**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
bakun@bouskainet.net

**Basadi albaitaritza**

Ribaitario  
Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.basadialbaitaritza.com  
www.basadialbaitaritza.com

Gobez: 11-13 / Arrabakoz: 16-19:30 / Astebeteen goizean eta larunbatean talde  
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez etxeko zerbitzua

**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Pafolia Etxezarreta, 25  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73  
943 86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com

**Braky's**  
Okindegia • Katedegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

ESTI **MORA** ETA ENERITZ **ZUBIZARRETA**

Txiribuelta elkarteko kideak

“Esperientziak partekatuta norberaren jarrera aldatzen da eta horrek umeari eragiten dio”

Zero eta sei urte bitarteko haurren eta beraien gurasoen garapenerako sortu berria den elkartea da Txiribuelta eta gaur egun sumatzen dituzten hutsune batzuk betetzeko asmoa dute. Urtarrilaren 4an ekitaldi bat egingo dute herritarrei beraien berri emateko.



TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ekainean hasi zituzten lehen pausoak eta gauregun hamar familiak osatzen dute elkarteak.

**Zer da zuen Txiribuelta?**

Esti: Txiribuelta haurren eta gurasoen garapenerako elkarteak da. Esan daiteke proiektua teilatutik hasitako etxea dela, ez da ideia finko batekin hasitakoa. Eneritz: Ama berriak gara eta ikusten genuen badaudela hutsune batzuk, adibidez, gure umeekin jolasteko edo beraiek garatzeko lekurik ez zegoela herrian. Hutsune horiek urte osoan gertatzen dira, baina negua heltzen denean, areagotu egiten dira. Guraso batzuek egoki ikusi genuen elkarteak sortzea hitzaldiak edota umeekin egiteko ekimenak antolatzen.

**Zer proposatzen duzue?**

Esti: Elkartearen bidez mahai inguruak egiteko asmoa daukagu, baita

hitzaldiak antolatzen ere. Baina ez adituak ekarrita bakarrik. Gure inguruan badago jendea arlo batzuetan gaitasunak dituztenak eta pentsatzen dugu besteentzako aberasgarriak izan daitezkeela. Ideia da hilerotailer bat edo bi egitea, hitzaldiak antolatzea eta hilean behin gutxienez mahai inguruak egitea. Horiek prestatzeko lantalde bidez funtzionatuko dugu. Zuzendaritza batzorde bat osatu dugu sortzaileok eta horrez gain batzar sortzaileak ere egongo da. Gero, bazkietza kanpaina zabaltzen denean, gure nahia da lantaldeak osatzea lana errazago egiteko. Estatutuak erregistrora eraman ditugu eta legezartzeko bidean gaude. Eneritz: Ez dugu nahi ludoteka bat izan, hori badago-eta zaharragoentzat.

**Hezkuntza beti haurrekin lotzen da, baina zuek**

**gurasoen garapena ere jasotzen duzue.**

Esti: Umeen hazkuntzan parte garrantzitsuenak gurasoak dute. Baita ere nahi dugu gure umeek ikustea beste familia eredu eta gauzak egiteko beste modu batzuk ere badaudela. Hori guztia partekatu nahi dugu.

**Elkarteak sortzeko modelorik ba al duzue?**

“Ideia da hilerotailer bat edo bi egitea, hitzaldiak antolatzea eta hilean behin gutxienez mahai inguruak antolatzea”

Esti: Ideia lagun baten bidez etorri zitzaigun. Beraiek udalak lokal bat utzi zien. Han ere antzerki funtzionatzen dute, 30 familiarekin hasi ziren eta orain 57 dira. Eneritz: Ez dugu gauza itxi bat izan nahi, baizik eta herriarentzat zabalik dagoena. Elkartean sartzen diren guztiak egongo dira lantalderen batean sartuta, denek egin dezaten lan. Hori izango da baldintzetako bat. Hartara, denok egongo gara inplikaturik.

**Zer pauso eman dituzue?**

Esti: Hasierako ardura pixka bat zentratzea izan zen. Nondik hasiko gara? Zer egingo dugu? Udalera jo genuen eta hezkuntza zinegotziak animatuta, eta beraiek ere hala nahi zutelako, Hezkuntza batzordera eraman genuen gure proiektua eta lokalaren eskaera. Orduetik ez dugu erantzunik jaso.





### **Agian hezkuntza ereduarekin tupust egiten duela pentsatzen dute?**

Esti: Gure proiektua ez doa hortik. Gurea ez da hezkuntza arautuaren alternatiba bat. Egungo sarea familiek, eskolek, parkeek osatzen dute eta guk komunitate horretan zerbait falta dela uste dugu, eta pixkanaka joango gara hutsune hori betetzen.

### **0 eta 6 urte arteko haur eta familiei zuzenduta dago. Zergatik adin tarte hori?**

Esti: Iruditzen zaigu oso etapa garrantzitsua dela umeen hezkuntzan. Gero, 6 urtetik aurrera eskolatik kanpoko jarduerekin hasten dira eta gurasoekin gutxiago egoten dira. Garapen horretan oso urte garrantzitsuak direla

iruditzen zaigu. Hurrek eskolak dituzte, baina gure artean profesionalak baditugu, zergatik ez gara aberastuko jakintza horrekin?

Eneritz: Orain arte mundu ezezaguna izan da guretzat. Pixkanaka gauza batengatik edo besteagatik informazioa heltzen joan zaigu eta ikusten dugu beste bide bat dagoela gure umeekin egoteko.

### **Haur bakoitza mundu bat da. Ikasteko ere baliagarria izan daiteke gurasoentzat.**

Eneritz: Prototipo asko daude. Esaten digute umeak honela portatu behar duela, baina gero ikusten duzu umeak mila erataria porta daitezkeela. Beti guraso berberekin egoten bazara, modu bat ezagutuko duzu,

**“Ez dugu gauza itxi bat izan nahi, baizik eta herriarentzat zabalik dagoena”**

baina zabaltzen bazara eta beste hogeit gurasorekin hitz egiten baduzu, ikusiko duzu ikuspuntu desberdinak daudela. Agian ez dira baliagarriak izango, baina behintzat jakingo duzu hor daudela. Esperientziak partekatuta norberaren jarrera aldatu egiten da eta zuzenean ez bada ere azkenean umeari eragiten

dio; zure umea ikusteko era ere aldatu egiten da.

### **Zein dituzue hurrengo pausoak?**

Esti: Hurrengo pausoak, gertu daudenak, Gabonetan egingo ditugun tailerrak izango dira. Azaroaren 4an, 11:00etatik 13:00etara, Torreberrin. Mahai informatibo bat jartzeko asmoa dugu eta eskuorri batzuk banatzekoa. Horrela jakingo dugu zenbat jende dagoen interesatuta. Gero, berehalaxe, bazkideitza kanpaina jarriko dugu martxan. Proiektu bat osatuta dugu, Udalean aurkeztu duguna, eta orain beste proiektu bat egin nahi dugu, Udala uztea nahi dugun lokalen kudeaketaren ingurukoa, ikusi dezaten serio goazela. ■

## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700

Egin zaitez  
**BALEIKEKO**  
bazkide



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**BEEP**

**DIGITAL+**



## ERNETO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

## ERTZ INFORMATIKA



Orange

Portatilak eta mugikorrek konpontzeko zerbitzua  
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTIXO AUZOA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
erota@erota-okindegia.com

## FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel: 943 11 63 97

## Galdona



Mendiara mainela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kala Tel. 943862181

## GLENCOE

INGELES AKADEMIA

4 PERTSONAKO  
TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha  
tel. 670 391 777

**matrikulazioa dohainik!**



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitez  
**BALEIKEKO**  
bazkide



Ikastegi homologatua

## Golden Gate

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net



# “Norabide berri batean jarri dugu herria”

Datorren urteko maiatzean utziko du alkateza Iñaki Agirrezabalagak, karguan zortzi urte egin ondoren.

Oraindik ez omen du erabaki gero zer egingo duen, baina politika oso presente egon da bere bizitzan jaio zenetik eta aurrerantzean ere hala izango da ziurrenik.

TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Iñaki Agirrezabalagak (Zumaia, 1977) bi urte zituen aita Kas-tor Zumaiaiko alkate aukeratu zutenean, Franco ondorengo lehen udal hauteskundeetan. “1990era arte izan zen alkate, 11 urtez”. Haurtzaroko oroitzapen asko dauzka gordeta: “Gogoan dut aita gehienetan berandu etortzen zela etxera. Akordatzen naiz herrian ika-mika handia izan zela behin, okindegiek igandean irekitzen hasi behar zutelako. Jendeak etxera telefonoz deitzeko ohitura zuen orduan, eta kexatu egiten ziren ea nola zen hura posible...”. Artxandako (Bilbo) parkera joan gabe gelditu ziren larunbat hura ere iltzatuta du oroimenean. “Artxandara joatekoak ginen gurasoekin, egunpasa, baina gure plana bertan behera gelditu zen. Artadin arazoren bat sortu zen urarekin, eta aitak hara joan behar izan zuen. Akordatzen naiz anaia eta biok han ibili ginela, aitarekin Artadin, sekulako frustrazioarekin”.

Semeak azken zortzi urte hauetan ezagutu duen udale-txeak zerikusi gutxi du aitari kudeatzea egokitu zitzaionare-kin. “Beste garai batzuk ziren haiek. Gordinago bizi zuten dena. Udaletxeak askoz baliabide gutxiago zituen, langile gutxiago. Ziurrenik, ez zen egongo ez kultura teknikaririk, ez beste asko. Idazkaria, kontu hartzailea, administrariak eta askoz gehiago ez. Aitak alkatetza hartu zuenean urte batzuk egon zen kobratu gabe, inguruko alkate guztiak bezala. Orduan hala zen. Hura zen egoera, Beste filosofia bat zegoen”. Zer esanik ez 1980ko hamarkadako giro politikoa. “Oso gogorra. Aitak askotan kontatzen du pleno batean nola publikoan zegoen batek berokia ireki eta labana bat erakutsi zion. Mehatxuak ere askotan izaten zituzten, kontuz ibiltzeko zer esaten zuten...”.

### **Eta, hala ere, zuri politikarako grina piztu zitzaizun...**

Politika etxean bizi izan dut txikitatik eta horrek eragina izan du, dudarik ez. Txiki-txikitatik gustatu izan zait.

### **Nola egin zenuen politikarako lehen pausoa?**

Egia esan, ez naiz oso ondo akordatzen. Haurra nintzela ere mitinetara joaten nintzen gurasoekin. Modu naturalean sartu nintzen, pixkanaka. Jendea ezagutzen duzu, beste gazte batzuk, eta poliki-poliki sartu egin nintzen Gazte Abertzaleak-en –Eusko Alkartasunaren gazte mugimendua–. Zenbat urterekin ez dakit, 19rekin edo...

### **Alkate izan baino lehen, zinegotzi izan ziren. Nola iritsi ziren udaletxera?**

2003an alderdiak proposatu zidan udal hauteskundeetarako zerrendan joatea eta onartu egin nuen. 26 urte nituen.

### **EAJrekin koalizioan aurkeztu zineten, baina giroa ez zen oso ona zuen artean. Kontatu nola izan zen...**

Koalizio batean joan ginen PNV eta EA, nazio mailako akordio zabal baten barruan. Baina guk Zumaian ez genuen PNVrekin koalizioan joan nahi, ez ginen batere ondo konpontzen. Zumaia Lantzenekiko oso kritikoa ginen. Baina alderditik behartu egin gintuzten. Hala ere, azken unera arte, kolokan egon zen dena. Gogoan daukat aurkezpen publikoa egin behar genuela Forondan, eta egun hartan bertan ez zegoela garbi agertuko ginen edo ez... Denbora pasa da eta ora-in konta dezaket. Momentu hartan eskerrik asko batzuk jaso genituen, baina hura bukatu zen bukatu zen moduan.

### **Zuk zer ardura izan zenituen legealdi hartan?**

Kultura eta turismoa.

### **Zer gogoratzen duzu lehen urte haietaz?**



Gauza bat da alderdian egotea eta gutxi gorabehera jakitea zer gai ari diren lantzen, ezagutzea hau edo bestea, zer den batzorde bat; beste kontu bat da udaletxe barruan egotea. Hasieran ikastea zen nire helburua, jendea ezagutzea, teknikariak, nola funtzionatzen zen udaletxean, zer ohitura zeuden...

### Baina koalizioa hautsi egin zen...

Koalizioan joatea erabaki genuen, PNVk agindu zigulako Zumaia Lantzen etorkizunari buruzko hausnarketa egingo zela. Hori lorpen txiki bat izan zen guretzat. Baina gobernatzen hasi ginenean konturatu ginen ez zutela hausnarketa serioerik egiteko asmorik. Horri gehitzen bazaio Odietan eta Beheko plazan egin nahi zen aktuazioarekin gu ez geundela konforme, eta Torreagako babes ofizialeko etxebizitzak Puntanuetara eramatea ere ez zitzaigula ondo iruditzen... Koktel horrekin puskatutzat eman zen koalizioa.

### Hiru gai horiek gaur egun oraindik mahai gainean daude...

Ba, ordutik datoz.

### Eta hurrengo udal hauteskundeetan, 2007an, zerrendaburu aurkeztu eta alkate atera zinen, Ezker Abertzalearen eta EB-Aralarren babesarekin. Akordio hark hautsak harrotu zituen.

Aurreko legealdian zinegotzi izan ginen gehienok jarraitu genuen eta elkar ezagutzen genuen. Hauteskundeak egin zirenean, indar korrelazioa aldatu egin zen eta aukera bat zabaldu zen gobernu aldatzeko. Orduan, gure artean hitz egiten hasi ginen, ea hura posible zen edo ez. Zumaia mailan, eta ez beste inon. Alkatea aukeratzeko eguna iritsi eta artean ez genuen erabakirik; pleno aretora sartu baino bost minutu lehenago jakin nuen ni bozkatuko nindutela. Hori horrela izan zen, batzuek sinetsi edo ez. Egia da aurretik hitz egin genuela, ez zen bat-bateko kontu bat; baina ez zen erraza, gure artean zalantza asko zeudelako.

### Eusko Alkartasunako buruzagiek nola erreazionatu zuten?

Alderdian ez zen ondo ikusi, ez; ez zuten onartu, eta deitu egin zidaten. Gogorra izan zen. Erabakia aldaktzeko deitu eta dimititzeko agindu zidaten. Zorionez, esan behar dut babesa ere jaso nuela.

### Ordurako alderdia zatituta al zegoen?

Publikoki oraindik ez, baina etxe barruan bai.

### Eta nork agintzen zuen orduan alderdian?

Gipuzkoan, Iñaki Galdosek, eta nazionalean, Begoña Errastik. Iñaki Galdosek ez, baina bere gertuko laguntzaile batek deitu zidan eta esan zidan dimititzeko. Babesa ere jaso nuen, baina Begoña Errastirengaino iritsi behar izan nuen azalpenak ematera.

### Erabakia zuk hartu al zenuen?

Erabakia herriko talde osoak hartu zuen, nik bakarrik ez nuen hartuko.



## BIGARREN LEGEALDIA

*Bigarren legealdiko Udal Gobernuua. Azis Alberdiri –ezkerrean– Peru Fdez. Arroiabek hartu zion lekukoa. Atzean, Eneko Agirre, Aitor Leiza eta Iñaki Ostolaza. Aurrean, Arritxu Gonzalez, Iñaki Agirrezabalaga eta Maitane Agirre.*

### Aitak zer esan zizun?

Orduan kanpoan zen, eta egia da ezustean harrapatu nuela. Baina ez dugu gehiegi hitz egiten politikaz.

### Ez al diozu aholkurik eskatzen? Edo berak ez al dizki- zu ematen?

Ez bata eta eta ez bestea. Noizean behin zerbait komentatzen dugu, baina ez dugu ohiturarik.

Alderdiaren presio hura gaingitu eta aurrera egin zenuten. Ezker Abertzalea eta EAren arteko akordioa orain normaltasunez ikusten da, baina orduan... Lehenengotakoa izango zen Zumaia.

Lehen ez zen izan, baina bai lehenengotakoa. Azpeitian ere egon zen, eta saiatu ziren Zumaia-koa Azpeitikoarekin lotzen, trukea izan zela esanez. Ez zen halakorik egon. Goiz hartan bertan Azpeitiko zinegotziak deitu zidan esateko Ezker Abertzaleko hautagaiari eman ziola botoa, eta bazekienez zer zetorkion gainera telefonoa itzali behar zuela. Handik ordu batzuetara, konturatu nintzen zertaz ari zen, deiak niri etorri zitzaizkidan.

### Eta inoiz damutu al zara pauso hura eman izanaz?

Ez, inoiz ez.

### Zalaparta haren erdian, gobernu al- daketa. Hasierak ez ziren errazak izan- go...

Erraztasunik ez genuen batere izan.

Udaletxera etorri nintzen eta dena hutsik zegoen. Bulegoan utzi zidaten Aita Mariko arraun txiki horietako bat, PNVren arkatx bat eta lauburu bat. Besterik ez... Gainera, hilabete gutxira kontu hartzailea eta idazkaria joan egin ziren. Udaleko bi teknikaririk garrantzitsuenak. Neurria hartzea ez zen erraza izan, ordu asko eta asko sartu genituen.

### Zer balorazio egiten duzu lehen legealdi hartaz?

Hasiera kaosa izan zen, baina lortu genuen ordura arte udaletxean ukiezinak ziren hainbat kontu zalantzan jartzea. Adibidez, Zumaia Lantzen, hura kudeatzen zuen enpresa eta inguruan zeuden hainbat elementu. Udala bide egokian jarri genuen. Saiatu ginen politika egiteko modua aldatzen, herriari begira eta ez bulego barruan atea itxita. Hori ere lortu ge-

“Alderdian ez zen ondo ikusi; dimititzeko agindu zidaten. Zorionez, esan behar dut babesa ere jaso nuela”

**Cure-Txokoa**  
aberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiá  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bisá tel. 943 143 334

**API**

**Ibaigain**  
inmobiliaria

Txomin Agiré 4, beheá  
elena@ricardoazcue.com  
tel. 615 793 406 / 943 862 651  
fax: 943 862 748

[www.ibaigain.com](http://www.ibaigain.com)

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo**  
Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. Tel. 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

**IRUITZ**



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPAKIAK

Angelin Soratu, 2  
20750 ZUMAIÁ  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 689  
fax: 943 430 637

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armarin enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheá  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIÁ



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua


Basadi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide



**KABI** Pakete Etxezarrabi, 16  
943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517



**kalari**

**PAPER** diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez  
696 211 111 • [rgutierrez@rgutierrez.org](mailto:rgutierrez@rgutierrez.org) • [www.rgutierrez.org](http://www.rgutierrez.org)

**Kresala**  
Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

## “Badut afizio xelebren bat”

Ikastolako lagun koadrila berbera mantentzen du. “Hasieran deigarria egin zitzaion alkatea koadrilan edukitzea, baina badakite politika betidanik gustatu izan zaidala”. Noizean behin kritikaren bat egiten diotela aitortu du, “baina ez asko; eta uste dut kontuan hartzen ditudala”. Azken urteotako ardura politikoei nahi baino denbora gehiago kendu diote, bai koadrilarekin egoteko, bai bere zaletasunak praktikatzeko. “Niri beti gustatu izan zait asko kantuan egitea, San Pedro Abesbatzan. Alkate sartu nintzenez eutsi nahi izan nion, baina segituan ikusi nuen ezin nuela”. Tenore ahotsa du, eta eliz kantak ditu gustukoak. “*Tu es Petrus*, adibidez”. Kantuan hasi da, baina segituan lotsatu da. Fededun ote den galdetuta, ez du erantzun garbirik: “Askotan galdetu diot neure buruari. Momentu batzuetan bai, beste batzuetan ez... Ez nago seguru. Bizitza honetan zerbaitetan sinetsi behar da, horrek ematen dizu indarra aurrera segitzeko, baina Jainkoan... Ez daukat erantzunik”.

Baina ez du kantua afizio bakarra. Zaletasun “xelebre bat” baduela aitortu du: “Abioiak. Txikitatik gustatu izan zaizkit. Beti tren edo abioia oparitzeko eskatzen nuen. Eta jarraitzen dut afizio horrekin. Aldizkari espezializatu bat erosten dut hilero, abioien mugimendua jarraitzen dut, aireportuak, aireko trafikoa...”. Interneten ba omen dago programa bat abioiak nondik nora doazen ikusteko. “Adibidez, Zumaia gainetik pasatzen diren abioien informazioa jakin daiteke. Lehengoan pasa zen batek ilusioa egin zidan: bi solairuko Airbus 380a”. Okerrena da gero abioi batera igotzean urduritu egiten dela. “Beldurrik ez dut, baina askotan hasten naiz pentsatzen hau edo hura gertatzen bada... National Geographycen serie bat dago hegazkin istripuen ingurukoa eta azkenaldian harrapatuta nauka. Abioi bat hartzen dudan aldiro nerbiotatik jartzen naiz, akordatzen naizelako serie horretako istripuekin. Normalean akats tontoak izaten dira, gainera”.

Zuzenbide ikasketak erdizka utzi zituen duela 12 bat urte. “Laugarren mailako irakasgai bat eta bosgarren maila utzi nituen egin gabe; alkatetza utzi ondoren aukera bat izan daiteke ikasketak amaitzea, baina oraindik ez dut erabaki”.



# AGINTALDIA

## ZAZPI PUNTUTAN



### ◀ FRONTOIA

*“Eraikitzen ari gara eta esan dezaket amaituko dela. Eta ez da gutxi. Duela hiru urte ez nengoen batere seguru”.*

### ▶ BEHEKO PLAZA

*“Gure aurretik diseinatu zen proiektu erraldoi hura dimentsioz kanpo zegoen. Denborak arrazoia eman digu. Adibidez, lurrazpiko aparkalekua baztertu genuen. Eskerrak, bestela sei milioi euroko zuloa izango genuen”.*



### ◀ MUGI

*“Kotxea herri barruan gehiegi erabiltzeko ohitura aldatu nahi genuen. Zoritxarrez, txikizio handiak izan ziren eta azkenean kendu egin behar izan genuen. Baina etorkizunean antzeko zerbait jarri beharko litzateke”.*

## ► HONDAKINAK

“Aitortzen dut hasieran ez nintzela atez atekoaren aldekoa, baina gaian sakondu eta gero konturatu nintzen gaur egun sistema garbiena eta eraginkorra dela. Egundoko polemika sortu zen, zabor poltsak zintzilik... Horri irtenbidea eman behar zitzaion eta hondakinen mahaian adostasun batera iritsi ginen, erdibidekoa”.



## ◀ ETXEBIZITZAK

“Guk sustatutako etxebizitzetan beti saiatu gara babes mailaren bat ematen. Baina egia da ez dela promozio gehiago egon, merkatua erori egin delako. Bigarren etxebizitzetara zerga igo diegu, merkatura ateratzeko, baina oraindik emaitzak falta zaizkigu jakiteko eraginik izan duen”.



## ► KOMENTUA

“Irtenbide bat behar du lehenbailehen. Ideia zehaztuta dago. Aldundiarekin saiatu gara, baina ez dago dirurik. Proiektua idatzi behar da eta eraikinak egokitzapen integrala eskatzen du”.



## ◀ LAN PUBLIKOA

“Gure apustua izan da arlo publikoa indartzea. Hainbat departamentu indartu ditugu: Gizarte Zerbitzuak, Idazkaritza, Berdintasun Saila, Brigada, Kirol Patronatua, Kultura, Hirigintza... Horrek ekarri du zerbitzua hobetzea eta azpikontratak murriztea, baina oraindik ere gastua gehiago jaisten lagundu beharko luke”.



**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

Egin zaitez  
**BALEIKE**  
bazkide




**Maluta**  
jatetxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitik • ogitarakoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**Nikol**  
taberna

Amiako plaza 243561516



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)  
809 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com

**MARGARI** fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 891



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEREN  
**OLIDEN**  
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com

**Oliden arkitek-tura**  
678 975 652  
943 143 093  
www.olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Fabrikak  
Telakak  
Etxerak  
(Sukaldea, bainuak)  
Indusri martiritandak  
Mota guztetako gelak eta lekuak

Etxerren inspezio teknikak (ITE)  
Zurkato energetikak  
Funtzio desberdin eta altuerak  
Etxerren berrakondak  
Mota guztetako proiektuak



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbi@kirolak.com



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoa, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskaltel.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

**La Primavera**  
pizzeria

943 247 011



www.laprimaverapizzeria.com





nuen. Lana oso eroso egin nuen. Eskertu behar dut Nereak [Epelde], Josebak [Azpiazu] eta Andonik [Etxaniz] egin zuten lan oso txukuna. Oso gustura egon nintzen beraiekin. Zoritxarrez, EAko beste zinegotziarekin izan genituen arazoak eta horrek legealdia baldintzatu zuen. Pena hori daukat, gure arteko dinamika nahasi zuelako pixka bat.

**Bigarren legealdian jadanik Bilduren izenean aurkeztu zinen zerrendaburu. Ezker Abertzaleak historikoki boto gehiago lortu arren, EAko hautagaia zerrendaburu.**

Kontu horiek hitz egin ziren, bai, baina naturaltasunez. Ez zen borrokarik izan. Baina egoera ere berezia zen orduan. Bildu legez kanpo uzteko prozesua jarri zen martxan eta erabakia nahikoa azkar hartu genuen. Ez zen gehiegi eztabaidatu eta denok naturaltasunez erabaki genuen, aurreko lau urteetako esperientzia ona ikusita, neu joatea zerrendaburu. Betiere garbi edukita talde bat ginela.

**Zu berriro alkate, baina taldea erabat berria zen eta, orohar, oso gaztea.**

“Hurrengo alkatearentzat aholkua? Pazientzia izan dezala”

Gauza batzuk esplikatu behar izaten dira hasieran, normala denez, baina behin martxa hartuta, oso ondo funtzionatu dugu talde bezala. Eta lehen legealdiarekin alderatuta, egunerokoan erabat desagertu dira alderdi arteko banaketak eta talde bat bezala funtzionatu dugu. Zazpi lagun, bakoitza bere iritziarekin. Eztabaida egon denean, ez da alderdiaren iritzia jarri mahai ganean.

**Ez zara hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko. Erabakia zuk hartu al duzu?**

Bai, neuk, eta aspaldi hartu nuen, gainera. Nire teoria beti izan da pertsona batek ez dituela egin behar kargu berean

bi legealdi baino gehiago, eta koherentzia hori mantendu nahi dut. Jakin nuenean berriro alkate izango nintzela, orduan esan nion neure buruari hau izango zela azken legealdia. Oso garbi izan dut hasieratik. Eta ingurukoek bazekiten. Ez dago besterik.

**Alkatetzara iritsi berritan, elkarrizketa batean esan zuen nahiko zenukeela Zumaia hobea utzi kargua uztean. Konforme zaude egindakoarekin?**

Gehiago egin izana nahiko nuke. Onartzen dut. Funtzionamendu aldetik lortu dugu Udala gardena izatea. Hori da nire iritzia. Orain prozedurak garbiago eta publizitate gehiagorekin egiten dira. Bestetik, publikotasuna ere nabarmen handiagoa da. Eta parte hartzea ere sustatu dugu. Inbertsio dezente egin dira, garai txarrak izan arren. Gustatuko litzaidake leku gehiagotara iritsi izana. Gertutasuna ere gehiago sakondu daiteke, herritarrei informazioa hobeto helarazi... Norabide berri batean jarri dugu herria eta zentzu horretan pozik nago.

**Eta diru kontuak nola aurkituko ditu zure ondorengoak?**

Udala zorrik gabe aurkituko du.

**Baina Udalaren gainean badago laino beltz handi bat: Zumaia Lantzenen zorra.**

Hala da. Zumaia Lantzenek, gaur egun, hiru milioi euroko zorra du. Likidatzea eta disolbatzea da gure nahia, eta Udalak har ditzala bere pasibo eta aktibo guztiak. Udalak dagoeneko bere zorpetze mailan sartuta dauka Zumaia Lantzenen zuloa Aldundiari aurkeztu behar zaion plan ekonomiko finantzarioan. Beraz, horrek ez gaitu hainbeste kezkatzen. Gertatzen da orain zenbaki guztiak nahastuko direla, baina garbi gera dadila zor hori Zumaia Lantzenetik datorrela.

**Eta nola sortu da Zumaia Lantzenen zorra?**

Batetik, oraindik Odietako sei etxebizitza saltzeko dauzka. Bestetik, beste lur erosketa batzuk egin ziren bere garaian, Basustan, adibidez. Baina zulorik handiena sortu du Promociones Torreagarekin egin zen akordioak. Eskubidea eman zitzaion babes ofizialeko etxebizitzak han egin beharrean Puntanuetan egiteko. Ordainetan, Promociones Torreagak Zumaia Lantzeni eman behar zizkion 3,6 milioi euro inguru. 600.000 euro inguru kobratu dira, baina hiru milioi falta dira. Gaur egun, Promociones Torreaga hartzekodunen konkurtsuan sartu da, gu zerrendan gaude, baina aurretik daude finantza entitateak eta ez dugu ezer kobratzeko esperantza handirik.

**Orduan, hiru milioi euroko zulo horrek erabat baldintzatuko du hurrengo Udal Gobernuaren gaitasuna...**

Odietako sei etxebizitzak salduz gero, erdira jaitziko litzateke zuloa, 1,5 milioira. Hori berriro finantzatzeko modua ari gara bilatzen. Bainaesan behar dut arduraz jokatu dugula



“Gustatuko litzaidake leku gehiagotara iritsi izana, herritarrei informazioa hobeto helarazi...”

## ◀ KARGUA HARTU BERRI

2007ko urriko aldizkarian elkarrizketatu genituen Iñaki Agirrezabalaga eta Andoni Etxaniz alkateordea, kargua hartu berri.

eta badira bizpahiru urte zor hori aintzat hartu dugula Udalaren plan ekonomiko finantzarioa egiteko orduan.

**Zure esperientziatik, hurrengo alkateari zer aholku emango zenioke?**

Pazientzia izan dezala.

**Eta zein dira hurrengo alka-teak izango dituen erronkak?**

Zumaia daukan sarrerari irtenbide bat eman behar zaio. Zubitxikitik herrigune aldera lau mila lagun bizi dira eta egunen batean Zubitxikian zerbait gertatzen bada sarrera erabat itxita gelditzen da. Bestetik, Zumaia erreferentzialtasuna lortu behar du eskualdean. Pisua ari da hartzen Gipuzkoan, eta etorkizunean erabakiak hartzen direnean Zumaia aintzat hartu beharko da. Adibidez, zerbitzu berriak sortzean egoitza Zumaian jarriz, beti Zarautzen edo Azpeitian jarri beharrean.

**Turismoa ere indar handia ari da hartzen. Horri ere erantzun beharko zaio...**

Zumaia erreferente izan behar duela esan dudanean, hori da gaietako bat. Aukera guztiekin gertatzen den bezala, jakin behar dugu nora joan nahi dugun, zer ekintza bultza nahi ditugun. Arriskuak neurtu behar dira. Turismoari dagokionez, ez dut nahi Benidormeko eredu, eta ez dut uste zumaia gehienek hura nahi dutenik. Hori ondo kontrolatu behar da. Zumaia 10.000 biztanleko herria dela jakinik, gure kapazitatea ondo neurtu eta horri egokitutako eskaintza egin. Udan ez gaitzen 40.000 lagun izan.

**Eta zer egin behar duzu alkatetzat uztean? Politikan jarraituko al duzu?**

Ez dakit zer egingo dudana, baina politikan jarraituko dut; beste kontu bat da erakunde publikoren batean edo kargu politikoren batean ardurarik hartuko dudana. Horri, gaur egun, ezin dizut erantzun. Beste bide profesional bati heltzea ere ez dut baztertzeko. ■

# **EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU**



**Gipuzkoako komertzio txikia.  
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

# AQUARIUMA ETXE ONDOAN

Hamaika aldiz ikusi ditugu munduko hainbat bazterretako itsas hondoko irudi ederrak, baina oso gutxitan gure kostaldekoak. Etxe ondoan bizitzaz betetako aquariuma daukagula erakutsi digu Xabier Mina urpekariak.

TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: XABIER MINA

*Olagarroaren bila* tituluaren ondoren, bideoaren lehen irudia: harraldearen irudi panoramikoa, zuri-beltzean. Hurrengo planoak: kolorerik gabeko ur azalean gaude; ur tanta batek irrist egin du kameraren objektiboan, eta kolorez betetako itsasoan murgilarazi gaitu: alga berdeak, gorriak eta arreak haitzari helduta, *txima* luzeak etengabe atzera eta aurrera astintzen, olatuen erritmoan; arrain txikiak itzulituruka; bat-batean, olagarro bat parean! Tintazko bonbak jaurti dizkigu eta ihesi doa ziztu bizian... Zuloren batean ezkutatu da. Jarraian, gomexaren begirada mehatxaria, anemona koloretsuak, itsas izarraren erro arantzadunak, izkira piano jotzailea; Karraspioa, ostarrena, andarika, mantarraina, txangurroa, sepia, itsas aingira, anemona gehiago... Hor olagarroa! Ihes egin digu berriro, tinta artean... Itxaron... hemen dator... kamera heldu du erroekin... Irentsi egingo gaitu! [Baleike.com-en ikus daiteke]



## SEPIA

*Sepia (Sepia officinalis) arra eta emea elkarrekin ikusten dira ugalketa sasoian zehar.*




## ZAPOA

Zapoa (*Lophius piscatorius*) hondoan geldirik mantentzen da, inguruarekin bikain kamuflatuz.



## OSTARRENA ETA ANEMONAK

Ostarrena eta anemonek kolore bizia ematen diote itsas hondo arrokatuari.



## GOMEXA

*Gomexa (Scorpaena porcus) algaz jositako hondo arroksuetan kamuflatzen da eta zaila izaten da antzematea.*



## OLAGARROA

*Olagarroa (Octopus vulgaris) itsas hondo arroksuan. Molusku zefalopodo adimentsu hau ugaria da gure kostaldean.*



Hamar minutu eskaseko bideoan, gure kostaldean bizi diren hainbat itsas animalia eta landareren irudi ederrak bildu ditu Xabier Mina itsas zientzialariak (Iruñea, 1976). Urpekaritza eta argazkilaritza ditu afizio, eta ahal duen bakoitzean Iruñetik etorri eta gure inguruko uretan murgiltzen da. “Apenas dago euskal kostaldeari buruzko urpeko grabaziorik, eta nire gogoan da lan txukun bat prestatzea, hemen ditugun ekosistemak eta animaliak erakusteko, euskarazko azalpenekin”.

Munduko itsaso askotan izan du urpekaritza egiteko aukera –Cabo Verde, Galapagoak, Costa Rica, Indonesia, Itsaso Gorria– eta esperientzia ederrak bizi izan ditu gehienetan: “Itsas Gorria zoragarria da, ez dago animalia handirik, baina koralez beteta dago; Azoreetan marrazo urdinak gertu-gertutik ikusi genituen, bultza ere egiten ziguten albotik pasatzean...”. Baina Kantauri Itsasoan ere bizitzaz bete dagoela aldarrikatzen du Minak: “Mediterranean ura garbiago dago, badakigu Kantauri itsasoan olatuak izaten direla sarri, baina hemen askoz arrain gehiago ikusten dira. Gainera, Kantauri Itsasoak badu berezitasun bat: itsas korronteen dinamikaren eraginez, berez latitudeagatik dago-kiona baino temperatura epelagoa du, alga asko daude, eta horri esker Mediterraneoan edo Maroko iparraldean ikusten diren espezieak aurki daitezke, Galizian ez daudenak”. Zumaia eta Deba arteko harraldea, Deba eta Mutriku arteko Arbeko badia, Getaria eta



## MARRAZO URDINA

Argazia Azoreak uharteetan aterata egon arren, marrazo urdina (*Prionace glauca*) arrunta da gure ur zabaletan.



## INDIAKO OZEANOA

Indiako Ozeanoan koralek beraien bizitzarako baldintza ezin hobeak aurkitzen dituzte, eta kilometrotako koloniak osatzen dituzte.







**ITSAS IZARRA**

*Hurbiletik ikusita, itsas izarrak bere oin anbulakralak eta arantzak erakusten dizkigu.*



**ANDARIKA**

*Ugaltze sasoiari, andarika (Necora puber) arra eta emea zuloan topa ditzakegu elkarrekin.*

Elantxobe ditu gogokoen. Bideoko irudi gehienak leku horietan daude grabatuta.

**Oxigeno botilarik gabe**

Gehienetan apnean murgiltzen da Mina, oxigeno botilarik gabe. “Erosoagoa da, askatasun gehiago daukazu. Ez duzu hainbeste aparailu behar. Botilarekin bazoaz, erne egon beharra daukazu beti, nitrogenoa kontrolatu, deskonpresioa... Zure biriken gaitasun soilarekin ezin sakonera handiegian ibili, hamar metrora gehienez, eta horrela askotan ez duzu argi gehigarri behar”.

Gauz ere murgiltzen da askotan, normalean Getarian. “Nautikoaren atzean, edota hondartzako arranplan”. Ez omen dago urrutirago joan beharrik une gogoangarriak bizitzeko: “Gauz hondar gainean urpekaritza egitea zirrargarria da. Animalia asko ezkutaturik egoten dira. Zu argiarekin zoaz eta soilik bolatxo zuriak edo berdexkak ikusten dituzu. Begien distirak dira. Behin, Getarian, hondarretan behatza sartu nuen distira zerk egiten zuen jakiteko, eta berberetxo handi bat agertu zen. Beste behin, antzeko egoera batean, Blanesen (Katalunia), bolatxo distiratsu pila bat ikusi nuen. Hondarretan arakatu eta langostino multzoa ateratu zen. Argazki haiek *Quercus* aldizkarian argitaratu zituzten”.

Itsas bizitzaren urteko zikloa jarraitzeko aukera ere izaten du Minak. “Adibidez, otsailan eta martxoan oso erraz ikusten dira txangurroak. Behin Mutriku aldean zazpi ikusi nituen murgilaldi labur batean. Gero, apirilean, sepiak hasten dira arrautzak jartzen. Getariako arranplan bertan ikusi ditzakezue arra eta emea elkarrekin; eskuarekin uki daitezke. Orain, udazken-negu partean, haien kumeak daude...”.



**BALEZTARRAINA**

*Minaren lagun bat baleztarraina (Balistes carolinensis) aurrean duelarik.*



**DORTOKA**

*Ozeano Bareko dortoka berde hau (Chelonia mydas) itsas hondan geldirik mantentzen da, arraintxoek azal zati hilak eta izan ditzakeen parasitoak jaten dituzten bitartean.*



## XABIER MINA

Xabier Mina argazki bat egiten, itsaso tropikaletan.

Fusilarekin arrantzan ibiltzea ez du gustuko; hala ere, aitortzen du noiz edo noiz zerbait harrapatu eta jan izan duela. “Batuetan, animalia hobeto ezagutzeko ere bai”. Baina uretara sartu eta inguruan dozena erdi lagun fusilarekin arrantzan ikusteak pena ematen omen dio. “Gainera, istripu larrienak arrantzan ari den jendeari gertatzen zaizkio. Batuetan, metro asko jaisten dira, eta zerbait harrapatu eta tiraka hasi behar badute agian uste baino oxigeno gehiago kontsumitu eta gero igotzeko nahikoa ez...”. Berak nahiago du kamerarekin murgildu eta gozatu: “Lagun batzuek esaten didate meditazioaren antzekoa dela. Zure arnasketa entzuten duzu, horrekin gozaten hasten zara, harreman berezia daukazu kamerarekin, animaliekin, urarekin... Dinamika berezi batean sartzen zara. Flotatzean ere sentazioa berezia da, hegan zoazela dirudi. Eta, uretan, basoan ez bezala, animalia asko ikusten dituzu”. ■



## KARABELA PORTUGALDARRA

Karabela portugaldarraren (*Physalia physalis*) ziztadak oso mingarriak dira.

# Ehun metro karratuko erakusketa

## Ortopedia Zarautz

Herriko barra kalea, 11-14. Zarautz.



Ortopedia Zarautz-ek 15 urte daramatza bailarako biztanleen beharrei erantzuten ortoprotesien teknikari den Carmen Ormazabalen gidaritzapean. Abenduaren 6tik aurrera, erakusgai izango dituzte beren produktuak erakusketa berrituan.

### Zer produktu saltzen dituzue?

Osasunarekin, autonomia pertsonalarekin eta bizi kalitatearen hobekuntzarekin lotutako produktuak saltzen ditugu. Osasun Sailarekin hitzarmena dugu eta, ondorioz, hainbat produktuentzako diru-laguntza eskaerak izapidetzen ditugu. Produktu hauek ditugu: Mugikortasunean laguntzekoak, garbitasunerakoak, ohean dauden edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonen zaintzarakoak, etxearen egokitzapenerakoak, eskailerrak igotzeko eta jaisteko aparatuak, oinetakoak, elikagai osasuntsuak eta ekologikoak...

### Zer da bezeroek gehien erosten dutena?

Gurpildun aulkiak, ohe artikulatuak, taka-takak, inkontinentziarako babesgariak, leku-aldaketak egiteko garabiak, bainu-ontzira sartzen laguntzen duten eserlekuak, dutxarako eserlekuak, arrapakak eta besaulki jasotzaileak dira, besteak beste, gehien eskatzen dituztenak.

### Zer berrikuntza eskaintzen duzue?

Erakusketa-lokal bat inauguratuko dugu abenduaren 6an, ohiko dendatik 50 metrora. Bi lokaletan egongo gara aurrerantzean. Betiko lokalean produktu txikiak egongo dira: oinetakoak, elikadurarako



produktu ekologikoak, errehabilitaziorako produktuak, protesiak, zaintza-produktuak... Correesen aurrean dugun erakusketa-lokalean, bestalde, ohiko etxe bat irudikatu dugu, logela, bainu-gela, sukalde, eta abarrekin. Espazio horietan mugikortasun arazoan edo bestelako mugen ondorioz sortzen diren zailtasunei aurre egiten laguntzen duten produktuak jarri ditugu bezeroen esku.

### Nondik sortu da erakusketa-lokalearen beharra?

Eguneroko ohiko jarduerak gauzatzeko zailtasunak izaten dituzte hainbat pertsonak: ohetik jaikitzeko, dutxatzeko, bainu-ontzira sartzeko, komunikatzen jaikitzeko, telefonoa egoki erabiltzeko, egunkaria irakurtzeko, bakarrik jantzeko, mahai-tresnak erabiltzeko. Askok ez dakite jarduerak horiek errazago gauzatu ditzaketela laguntza-produktuekin. Hori da erakusketaren helburua: laguntza-produktuak herritarrei erakustea, horien erabileran trebatzea eta norberak baloratzea benetan baliagarriak izan dakizkien ala ez.

### Hitzordua hartu behar al du erakusketara gerturatu nahi duenak produktuak kустeko eta frogatzeko?

Ez. Nahikoa da bi lokal horietakoren atera hurbiltzea.

Abenduaren 6an, 7an eta 8an erakusketa-lokala irekita izango dugu. Bestalde, egun horietan, udaletxeko plazan jarriko den stand batean egongo gara produktuak erakusten.

**ORTOPEDIA**

Herriko barra kalea, 11-14  
Tf: 943 835 883  
ortopediazarautz@hotmail.es

**ZARAUTZ**

Asteleheneetik ostiralera  
10:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatetan  
10:00-13:00

# ANTZEZLAN BATEN HAZIAK LANDATZEN

Hemendik urtebetera Ipar Euskal Herrian aurkeztuko den antzezlan baten lehen pausoak eman ziren azaroaren erdialdean Aita Mari zinema aretoan. Donostia 2016 egitasmoaren proiektu bati esker, Artedrama arte eszenikoen plataformak astebeteko egonaldia egin zuen Zumaian. Bertan, sorkuntza prozesua gauzatzeaz gain, aktoreek herriko antzerki ikasleekin ere hartu-emanak izan zituzten. Obra hau, *Etxekoak*, 2015eko azaroan emango da Zumaian.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
IRUDIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Mahai bat, bi aulki, marroi koloreko papera horma baten lanak egiten eta telefono zaharkitu bat lurrian. Lau aktore, bi emakumezko eta bi gizonezko, eta antzezlan baten eskeletoa ohol-tza gainean, liburu baten borradorearen lehen hitzak izango balira bezala. Aktoreak zalantzekin mugitzen dira eskenatoki gainean, beren lekua zehazki zein den jakingo ez balute bezala. Esaldiak deklamaterakoan segurtasun falta sumatzen zaie eta gidoia eskuetan hartzen dute ahaztutako hitzak gogoratzeko. Aurrean, hutsik dagoen aretoko lehen ilaran eserita, ikusle bitxiak: 12 urte inguruko sei neska-mutil, algaraka batzuetan, serio besteetan, egoerari adi-adi begira.

2015eko amaieran estreinatuko den *Etxekoak* antzezlaneko lehen entseguetako uneak dira hauek, azaroaren 18an Aita Marin bisitakoak. Artedrama arte eszenikoen plataformak ekoiztuta Huts Teatroa taldeak taularatuko duen obra berriaren sorkuntza prozesua eman zen azaroan Zumaian. Aktoreak eta ekoizpen taldeko kideak astebetetz izan ziren hemen: lana Aita Marin eta Alondegia kultur etxean egin zuten; lo, aldiz, Santa Klara landa-turismoko etxean. Entseguz entsegu, eta hainbat kideren laguntzarekin –aktoreak, zuzendari laguntzailea, eszenografoa, musikariak–, eskeleto hutsa den antzezlanari haragia, giharrak eta azala gehitzen joango zaizkio hemendik urtebetera estreinatzeko prest egoteko.

Donostia 2016 egitasmoak antolatutako *Mugalariak* proiektuari esker egin da egonaldi hau Zumaian. “Espainia

osoko 70 bat proposamen aurkeztu dira *Mugalariak* proiektura. Baldintzetako bat euskaraz izatea zen eta gurea izan da aukeratutako bost proposamenetako bat”, zioen Artedramako ekoizpen taldeko Xabino Alkortak. Proiektu honek Euskal Herriko hainbat herri edo antzokitan egonaldiak egiteko aukera eskaintzen du. “Haztegiak bezala dira. Helburua ez da lan bat estreinatzea, baizik eta krea-zio proiektu bat gauzatea. Eta bitartean herri horietako elkarrekin bildu behar da, honek guztiak inpaktua izan dezan herrian”, gaineratu du. Halako egitasmoak Ipar Euskal Herrian sarritan egiten direla gaineratu du. “Ikastoletatik gela osoak joan ohi dira entseguetara edo sorkuntza prozesutara. Azken finean umeak beraiek dira etorkizuneko ikusleak edota aktoreak”, azaldu du Alkortak.

Astebetetz herriko kultur baliabideak erabiltzeko aukera izan dute antzerki taldeko kideek, eta ordainetan herriko elkarte batzuekin elkartu dira, kasu honetan, Inazio Tolosak gidatzen duen antzerki eskolako ikasleekin. “Gonbidatzen gaituzten herrietan bertako elkarte batzuk aukeratzen ditugu eta beraiekin jartzen gara harremanetan, ez izateko artista parakaidista batzuk: hona etorri, baliabideez aprobetxatu eta ospa egin. Ez. Halako truke bat egiten dugu: gure proiektua pixka bat kontatzen dugu eta kasu honetan antzezlanaren prozesuaren hastapenak ikusten dituzte”, azaldu du Ander Lipus aktoreak. Kasu honetan, obrako zuzendaria ere bada markinarra. Zumaiarekin harreman lu-

“Helburua ez da lan bat estreinatzea, baizik eta krea-zio proiektu bat gauzatea”



**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**talaja**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Bechide ibiltegia Tel. 943961902

**Tapaia**  
Taberna



Enbera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (Hodilloa)  
Salxitrak, oilaskoak...  
Garagardoak-dukera

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**UPELA** PARABOTIKA  
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturalista, dietetika eta olikadura.

Upela plaza 9  
943 537 911  
upelabelardenda@hotmail.com



**yoana**  
ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behe  
943 143 278



**XUMAI KIROLAK**  
running eta trail



tel. 943 506 471 Basadi auzategia, 2B, beheko xumai\_10@hotmail.com

**Zalla**



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZATOZTE**

zatozte.bakailaudenda@gmail.com  
Juan Beltrun 4 beheko 20750 Zumaia  
TF 943861383

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net



BASADI 13  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943861018 / Fax. 943018173

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia



Alai suztegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

**EDU**  
ZUMAIKO  
OPTIKA

**ESKERRIK ASKO**  
—  
25 URTE ZUEKIN

**%25**  
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

Txomin Agirre 6, 20750  
T 943 143 057  
www.eduoptika.com



zea du Lipusek, bere lan gehienak pasa dira-eta herriko aretoetatik. “Zumaia-  
ra etortzeko arrazoï handi bat izan da.  
Mugalariak proiektuaren barruan herri  
batzuk zeuden eta guri erakargarria iru-  
ditu zitzaigun Zumaia. Zergatik? Ba,  
gure antzerki obra guztiak bertan eman  
ditugulako. Berez sentitzen dugu Zu-  
maiako publikoak edo bertako giroak  
maite gaituela”, dio. Azaroan Zumaian  
izan ondoren, *Mugalariak* programari  
esker konpainiak bigarren egonaldi bat  
egiteko aukera izango du maiatzean La-  
purdiko Luhuso herrian.

Antzezlan batek lan itzela eskatzen du estreinaldira hel-  
du aurretik. *Etxekoak* obraren kasuan orain urtebete inguru  
hasi ziren lanean eta beste urtebete pasako da estreinatzerako.  
“Antzerki obra horren ekoizpenean eta sorkuntzan gabiltza.  
Prozesua luzea da. Aktoreekin entseguak egitea bakarrik ez,  
beste arte diziplina batzuk ere badaude: musika, eszenogra-  
fia... Pixkanaka egiten dugu lan eta horretarako oso egokia  
iruditzen zitzaigun astebetez Zumaiaiko antzokian egotea

“Berez sentitzen  
dugu Zumaiaiko  
publikoak edo  
bertako giroak  
maite gaituela”

lanketa horiek guztiak gauzatzen joate-  
ko”, azaldu du Lipusek.

Entsegei dagokienez, Zumaiaiko  
egonaldian lehen pausoak besterik ez  
dira hemen. “Udaberrian, apirilean edo  
maiatzean egin genuen testuaren irakur-  
keta eta orain hasi gara entseguen.  
Hasi besterik ez gara egin eta pertsoniak  
oraindik egin gabe daude. Musika ar-  
duraduna, eszenografia arduraduna eta  
zuzendari laguntzailea azaltzen direnean,  
gorputza pixka bat hartzen joango dira”,  
dio Jabi Barandiaran aktore donostia-  
rrak, obra honetan osaba Goioren papera egingo duenak.

Pertsonaiaren gorputzean sartuta, etxeko bata jantzita ater-  
a da areto kanpora zigarro bat erretzera, eta ondotik pasatzen  
diren herritarrak harituta begiratzen diote. Bera eta Lipusek  
gain, beste bi aktore ditu obra honek: Maika Etxekopar zi-  
burutarra eta Kristian Etxaluz Baxenafarrekoa. “Lehen aldiz  
gingo dut lan Jabirekin; Maika Etxekoparrekin aurrez lan  
egin dut beste sorkuntza batean, *Hamleten*, eta Kristianekin  
aspaldi, orain urte batzuk, egin nuen *Ibañeta*”.

Mugen bi aldeetako aktoreekin egingo du Lipusek lan antzezlan honetan. Bizkaitarra berau, mugaz bestaldeko aktoreen lan egitearen atzean arrazoi berezirik ez dagoela dio Iasone Paradak, Artedramako kideak. “Ez dut uste atzean ezer dagoenik. Kimika kontu bat dela esango nuke. Iparraldearekin harreman handia du Lipusek. Hankak lurrean jartzeko balio dio, Iparraldean antzerkiarekiko beste ohitura bat dute-eta. Lipus ez da areto handien zalea, ez zaio antzerki mota tradizionala gustatzen eta halakoetarako baliagarria zaio Iparraldera joatea”.

Ipar Euskal Herriarekin lotura izateko beste arrazoi bat bertan sorkuntzarako dituzten espazioak dira. Sorkuntza fabrikak deitzen zaizkie eta laguntzak ematen dizkiete bertako gobernuak. “Estreinaldirako bakarrik ez, kreaziorako ere bideratuta dauden lekuak dira. Frantzia osoko proposamenak jasotzen dituzte eta batzuetan ez da erraza izaten lekua lortzea”, gaineratu du Iasonek.

Kontrakorrontean doan antzerki mota alternatiboa jorratzeagatik da ezagun Lipus. XIII. Donostia Antzerki Saria irabazi zuen *Publikoari gorroto* lanarekin. Hura izan zen Huts Teatroa taldearen estreinako lana eta *Etxekoak* hau du bigarrena. “Pixka bat alde egiten dugu forma naturalistetatik eta antzerkia bestelako ispilu bat bilakatzen da. Horrek ez du esan nahi gai oso gureak edo sozialak ukitzen ez ditugunik. Betiko emozioak ukitzen ditugu azken finean. Kasu honetan, afrikar batekin maitemintzen den neska euskaldun baten historia kontatzen dugu. Kontatzen dugu zer zailtasun duen pertsona horrek Afrikatik ekartzeko maitatu edo ezagutu berri duen lagun hori. Erreferentziak baditugu eta jendeak ulertuko du, baina ez dugu kontatzen era naturalista edo errealista batean. Keinu teatralagoak ditu, ez direnak hain ohikoak. Adibidez, familiako pertsonaia bat, osaba Goio, pixka bat motela edo



## Beste bi egonaldi Zumaian

Azaroaren erdialdera Artedramak egindakoaren antzera, antzerkiarekin lotutako beste bi egonaldi egingo dira Zumaian urte bukaera baino lehen. ZUBi proiektuaren laguntzez baliatuta, beste bi konpainia izango dira Zumaian beren antzezlanak sortzen edota entsetzen.

ZUBi izeneko proiektu honetan Euskal Herriko zortzi kide elkartu dira euskal antzerkia bultzatzeko, horien artean, Zumaiko Udala. Euskarazko antzerkiaren profesionalizazioan laguntzea du helburu proiektua honek, sorkuntza fase guztietan euskal antzerkiaren ikuskizunak hedatzeko eta sustatzeko aukerak gehituz, proiektuaren sorretatik hasita hedatzeko fasera arte.

Hala, azaroan bertan, 24ko astean, Lauka taldearen *Amodioaren ziega* antzezlanaren sorkuntza prozesua bizi izan zen. Abenduaren 9tik 20ra, berriz, Metrokoadroka Kolektiboa taldearen *Su izan nahi* (bildakoak, senideak eta maskotak) obraren txanda izango da.





tontoa da eta nahita asto belarriak jarriko dizkiogu. Badakigu ez dela normala baina teatralizatzeko era bat da. Jendeak hori arraroa ikusten badu, zer egingo diogu, ba... Baina badago jendea maite duena beste zerbait eskaintzea”.

Libretoa Jon Gerediagak sinatzen badu ere, Lipus berak izandako bizipenak ditu abiapuntu, eta horixe aipatu zien entsegura joan ziren haurrei. “Kubara joan nintzenean neska bat egin nuen lagun eta maitemindu egin nintzen, baina ezin izan nuen ekarri lege kontuengatik. Lau urte behar izan nituen hona ekartzeko. Denbora horretan ezkondu ere egin ginen. Hori da obraren abiapuntua”.

Antzezlaneko lehen eszenak entseatu ondoren (“Besterik ez dugu oraingoz prestatuta!”), dio irribarretsu Iasonek), Lipus eszenatoki aurrean jarri eta lehen ilaran eserita dauden haurrei zuzendu zaie:

-Ulertu al duzue? Egoera ulertu al duzue? Eta erabilitako eus-kara? Batua da, baina batzuk Iparraldekoak dira eta agian azentua arraroa egingo zitzaizuen.

-Nik neskak telefonoz hitz egin duenean ez nuen ezer ulertzen. Gero konturatu naiz frantsesez ari zela ‘oui’ esan duelako –dio mutiko batek beste haurren algararen artean.

Zumaiako egonaldia-aren ondoren bakoitza bere lanetara itzuliko da denbora baterako, “norberak bere proiektuak ditu-eta”. Martxoan beste bi astez elkartuko dira Leioan, Artedramaren erresidentzia permanentean, eta maiatzean bigarren egonaldia egingo dute Luhuson, bertako Harri Xuri sorkuntza faktorian. Bertan aurkeztu zituzten *Hamlet* eta *Arrastoak* bezalako obrak eta *Etxekoak* honekin antzera jokatu nahi dute. 2015eko azaroaren 1ean egingo da estreinaldia eta Zumaian hilabete horretan bertan emango da. Han ikusiko da eskeleto hutsa zen borradorea ea gorpuzkera bikai-neko antzezlanara bihurtu den. ■



# Gomezagoren gutuna liburua, dagoeneko salgai!

**10€****Saltokiak:**

- Alondegia
- Aizpurua liburudenda
- Mandala
- Turismo bulegoa
- Otaño
- FotoGar



Txartel berriarekin **hamaika abantaila** dituzue Zumaiako denda, taberna, jatetxe eta negoziotan. Hemen zerrenda:

**Rosi garbiketak** **BERRIA**

Hilabeteko lehen ostiralean %10eko deskontua edredoi eta mantetan.

**Arruti arropa denda**

%5eko deskontuak abenduan erosketa guztietan. Ez da bateragarri izango beste deskontuekin.

**Maiaur**

Abendua eskeintza bereziak etxeko izozkietan.

**Xumai kirolak**

%5eko deskontua produktu guztietan.

**Yoana ileapaindegia**

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

**Endañeta elektrogailuak**

%5eko deskontua kontrazaleko iragarkian ageri diren produktuetan.

**Ertz informatika**

Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

**Tximista taberna**

Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

**Juanjo harategia**

10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldizkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

**Basusta Erreategia**

Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

**Flysch-Uzkudun taberna**

Eguneko menuarekin, kafea debalde.

**Iratxe Plazaola**

Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezakete eskaintza, bakoitzak behin.

**Marina kafetegia**

Bost pizza erosita, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

**Egoki erlojudenda**

%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

**Zalla taberna**

Udazkenean, kafea euro batean.

**Nikol taberna**

Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

**Ana zapiak**

%5eko deskontua produktu guztietan.

**Basusta loredenda**

Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

**Kabi taberna**

Garagardo kaña 1,5 euroan.

**Juaristi jatetxea**

Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupittoa aukeran.

**Trapaia taberna**

Igandetako bazkariarekin kafea opari.

**Ttakun taberna**

Ostegunetan kafea euro batean.

**Zatozte bakailudenda**

Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktuetan.

**Ganbara taberna**

Garagardo kaña 1,5 euroan bazkideei.

**Inpernupe taberna**

Kafea euro batean bazkideei.

**Otezuri taberna**

Etxeko tartak %10eko deskontuarekin.

**Optika Zumaia**

%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

**Ukendu parafarmazia**

Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

**Margari frutadenda**

Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

**Ekin elektrizitatea**

LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

**Iriondo optika**

Haurrengan ikasketa arazoak eta "begi alferra" ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

**D'Ana ileapaindegia**

Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

**Upela belardenda**

15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150 gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako margoa opari (aleak agortu arte).

**Yoana ileapaindegia**

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

**Golden Gate Institute**

Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

**Ilargi taberna**

Kafeak euro batean.

**La Primavera Pizzeria**

Bazkideentzat etxera eramatea doan.

**Beheko Plaza jatetxea**

Igandetan pintxo doan.

**A3**

Artikulu guztietan %5eko deskontua.

**Talaie jatetxea**

Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

**Talaia jatetxea**

Ostiraletan afariarekin kafea eta txupittoa doan.

**Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarra)**

Baleike txartelarekin %10 merkeago.

**Iruitz ileapaindegia**

Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

**Ardantzabide altzariak**

Ispiluak %10 merkeago.

**Aizpurua liburudenda**

Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

**Oskarbi kioldenda**

Arropan %5eko deskontua.

**Txalaparta**

Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

**Kuttun**

2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

**Kalari taberna**

Igandean afariak %10 merkeago.

# GABONETAN

# ZUMAIAKO SALTOKIAK



Zumaiko Udala



## Merkataritzaren parte zarelako

### ANITZAK GARA

*horrek aberasten gaitu*

SOMOS DIVERS@S  
*esto nos enriquece*

SUNTEM DIFERITI  
*aceasta ne face mai bogăți*

SOMOS DIVERS@S  
*isso enriquece-nos*

نحن مختلفون  
هذا يثرينا



antolatzailea:



Zumaiko Udala

babeslea:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazio Nagusia  
Mintzaitza eta Arutzaren  
Dibisioa/Departamentu Nagusia

### ANITZAK GARA. KULTURARTEKO TOPAKETAK.

#### Abenduaren 13an

Zumaiaiko afrikar elkartearen aurkezpena. Torreberriko aterpean. 17:00etan. Desfilea, dantzak eta afrikar janari dastaketa egongo dira, amaieran.

#### Abenduaren 16an

Aniztasuna lantzeko ipuin kontaketa: TXANOAK BURUAN ETA IBILI MUNDUAN. Kontukantoi taldea. Alondegiko haur liburutegian. 17.30ean. 4 urtetik gorakoentzat.

#### Abenduaren 17an

19:00etan MAMNOU ("Debekatuta") dokumentala eta solasaldia, amaieran. Malen Etxeak antolatuta.

#### Abenduaren 18an, MIGRATZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

18:30ean: Mahai ingurua: migrazio bizipenak: Zumaian, bizi garen 53 kulturei buruz, zer ezagutzen dugu? Badugu zertaz hitz egin! Alondegian, Oxford aretoan.

Amaieran: arabiar janari eta edari dastaketa.

# ABENDUA - URTARRILA

## DEIALDIAK

### Azaroaren 29tik

abendua 3ra:  
Euskararen Astea

### Abenduaren 6tik 8ra:

Oxforden, Inpernupe Kultur  
Elkartearen Bigarren eskuko  
Azoka

### Gabonetako XV.

Erakusleihu lehiaketa  
Informazioa, Turismo  
bulegoan 943-14 33 96.

### Abenduaren 28ra bitartean:

Bota bertso bat lehiaketa.  
Gaia: Ingo al deu?

## ERAKUSKETAK

### Abenduak 12tik 25era

BEGOÑA BERNAL- Made  
in Zumaia Abenduak  
26-urtarrilak 6  
ERESOKA 1937-1939-  
Erkibe kultur elkarte

## ABENDUA

### 5, ostirala

20:00 Itzurun tabernan  
kontzertua: Markos Untzeta  
eta Bidelapurak, Seinaleak  
disco berriaren aurkezpena

### 6, larunbata

10:00 Irteera Geologikoa  
(gaztelaniaz) Algorri  
Interpretazio Zentroan  
hasita. Erreserbak [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) eta Turismo  
Bulegoan  
11:00 Algorri Interpretazio  
Zentroan Hegaztien  
jantokiak kokatzeko irteera.  
Izen-ematea 943 14 31 00 /  
[info@algorri.eu](mailto:info@algorri.eu)

### 7, igandea

11:30 Zumaia-Deba-Zumaia  
itsasontziz (gaztelaniaz) Kirol  
Portutik abiatuta. Erreserbak  
[www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) eta  
Turismo Bulegoan

### 11, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum:  
Crónicas diplomáticas

### 12, ostirala

19:30 Forondan, meditazio  
saioa Gune elkarteak  
antolatuta

22:00 Aita Marin antzerkia:

Tartean taldearen Pankreas

23:00 Ganbara tabernan

bakarriketa: Mario  
Sinmanças

### 13, larunbata

17:00 Torreberri, Zumaia  
elkarte afrikarraren  
aurkezpena

### 14, igandea

12:00 Aita Marin, haurrentzat  
antzerkia: Txaloren Mollie  
Malone

16, asteartea

17:30 Haur liburutegian ipuin  
kontaketa aniztasunaren  
inguruan: Txanoak buruan  
eta ibili munduan

17, asteazkena

19:00 Oxforden, Mamnou  
(Debekatuta) dokumentala  
eta solasaldia Amal Ramzis  
zuzendariarekin

18, osteguna

18:00 Otezurin, Musika

Eskolako ikasleen entzualdia

18:30 Oxforden, Anitzen

sarearen mahai ingurua:  
hainbat herrialdeetatik  
etorritako zumaiarren  
bizipenak

### 19, ostirala

22:00 Aita Marin, antzerkia:  
GLU GLU taldearen De  
cuerpo presente

### 20, larunbata

18:30 Maria eta Jose aretoan,  
Udal Musika Bandaren  
Gabonetako kontzertua

20:00 Itzurun tabernan,  
kontzertua

### 21, igandea

Egun osoan zehar, Alai  
aUZategian Santo Tomas jai  
egitaraua

### 22, astelehena

21:00 Alondegian, Gabon  
koruaren entsegu orokorra

### 23, asteartea

19:00 Komentuan, Gospel  
kontzertua

### 24, asteazkena

9:00-14:00 Kiroldegian, areto  
futbol txapelketa azkarra

Eguerdia bitartean, Niño

Jesusen Eskean

12:30 Institutu parean hasita,

Olentzerorekin kantuan

15:30 Gabon Koruaren saioa

kalez kale

17:00 Eusebio Gurrutxaga

plazan, Gabon Abestien

lehiaketa Erkibe kultur

elkarrekin antolatuta.

18:00 Alai aUZategian hasi eta  
herrian zehar, Olentzero eta

Gomezagoren etorrera

18:30 Eusebio Gurrutxaga  
plazan, Jaiotza ikuskizuna

### 26, ostirala

19:00 Oxford aretoan,  
Eresoinka 1937-1939  
erakusketa irekiera eta  
Behoko Plaza abesbatzaren  
saioa

22:30 Torreberri gaztetxean:  
Etxepare Rap.

### 27, larunbata

11:00 Algorri Interpretazio  
Zentroan Gabonetako  
apaingarri iraukorren  
tailerra, izen-ematea 943 14  
31 00 / [info@algorri.eu](mailto:info@algorri.eu).

20:00 Itzurun tabernan,  
kontzertua

### 28, igandea

12:00 Aita Marin, haurrentzat  
antzerkia: En la Lona  
taldearen Sialuk

### 30, asteartea

18:00 Kiroldegian, xake  
txapelketa

### 31, asteazkena

12:00 San Silbestre V. Biko  
lasterketa mistoa (12:00  
gazteak. 12:30 helduak)

## URTARRILA

### 2, ostirala

19:00 Aita Marin, Xalbador  
dokumentala, Eneko  
Dorronsoro zuzendariaren  
aurkezpenarekin, Bertso  
Eskolak antolatuta

### 3, larunbata

20:00 Itzurun tabernan,  
kontzertua

### 4, igandea

11:00-13:00 Torreberri,  
haurrentzat tailerrak,  
Txiribuelta elkarteak  
antolatuta  
0-1 urte Masajea eta  
Altxorraren kutxa // 2-6  
urte Sukaldaritzak, Eskulanak  
eta Dantza

18:30 Errege Magoentzat  
eskutitzak jasotzea

### 5, astelehena

18:00 Errege Kabalgata

### 9, ostirala

19:30 Forondan, Gune  
elkarrekin antolatutako  
meditazio saioa

### 15, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum

17, larunbata eta 18,  
igandea



## 'XALBADOR'-EN DOKUMENTALA

### Urtarrilak 2

Eneko Dorronsoroaren  
'Xalbador, izana eta izena'  
dokumentala emango da Aita  
Marin, 19:00etan. Egilea bertan  
izango da.

10:00-14:00 eta 16:00-19:00,  
Alondegia, Zumaian eskuz  
esku 2. eskuko azoka.  
Produktuak Algorrin jasoko  
dira abenduak 26-urtarrilak  
15. 943 14 31 00 / [info@algorri.eu](mailto:info@algorri.eu)

### 18, igandea

12:00 Aita Marin, haurrentzat  
antzerkia: Erpurtxo Teatro  
Paraiso taldearen eskutik

### 22, osteguna

18:30 Oxford aretoan,  
Barreterapia saioa

### 23, ostirala

19:30 Forondan, Josean  
Manzanosekin solasaldia  
Gunek antolatuta: Zugan, un  
proyecto educativo global  
y sistemático para educar  
la Interioridad en niños y  
jóvenes

22:00 Aita Marin, antzerkia:  
Dejabu taldearen Arrastoak

### 29, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum

### 30, ostirala

23:00 Ganbara tabernan  
bakarriketa: Alex Rabanal



# Gomezagori gutunak

Doinua: "Saltarina da txepetxa eta"

## 1. (Guztiok)

**Z**umaiko Bertso eskolan gara  
Gomezagoren lagunak  
batel batean pasatzen ditu  
urte osoko egunak  
Abendua da eta Gabonak  
ez daudenez hain urrunak  
bihotzez egin ditugu denok  
zuretzat gure gutunak

## 2. (Joar)

**A**rkatzak sartzen hasi motxilan  
aurkitu dut zapatetan  
gero etxean flautakin hasi  
aberia botoietan  
Gomezago nik nahiko nuke  
esaten dizut benetan  
flauta berria eta motxila  
nahi nituzke Gabonetan.

## 3. (Ekhi eta Xuban)


**J**ada pizten hasi da  
Gabonen kandela  
arrantzalea zara  
nahi dugu berdela  
eta oraindik libre  
badago batela  
guretzako nahi dugu  
bertsolai txapela

## 4. (Irati)

**M**esedez Gomezago  
ekarri funda bat  
utzi alde batera  
arrantza ta pipak  
(Olar)  
Kaixo Gomezago  
ekarri zapatak  
zapata, sandalia  
edo bailarinak  
(Olar eta Irati)  
Eskertzen dizkizugu  
zure opariak

## 5. (Gorka)

**I**ritsi da eguna  
gauzak eskatzeko  
Urte osoa izan  
baitut pentsatzeko  
Aurten ekarri ezkerro  
nengoke konpleto  
zure itsasontzia  
arrantza egiteko



# Itzurun Taberna

## KONTZERTUAK

20:00tan

Abenduak 5

Markos Untzeta & Bidelapurrak

Abenduak 20

ORAI

Abenduak 27

David Gorospe

Búfalo

Urtarrilak 3

Jon Gurrutxaga duo

(Miguel Lagunarekin)



Itzurun Zuhaizbidea, 1. tel. 943 86 21 24

ARGAZKIA: PEO ROMATE



Kalitatezko  
produktuak

Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA

ZUMAIA  
Basadi auzategia, 4.  
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ  
Salegi kalea, 14.  
Tel./Faxa: 943 890 215

# Juanjo Larrañaga harategia





# EXCLUSIVAS **mardu**

*Gourmet elikagaien eta edarien banaketa*

Sansinenea Ind.

A3 partzela, B1 Zona

20749 Zestoa (Gipuzkoa)

Tel. 943 147 460

[mardu@mardu.es](mailto:mardu@mardu.es)

[www.mardu.es](http://www.mardu.es)



- ✓ Carrasco Guijuelo iberikoak
- ✓ Foie Rougié
- ✓ Jatorri izeneko hainbat ardo
- ✓ Haragiak
- ✓ Kontserbak
- ✓ Gaztak
- ✓ Olioak



*Otararak eta loteak prestatzen ditugu.  
Kontsultatu prezioak!!*

